

Tristura

Anton Txekhov



© Marjinalia Bilduma
2014. urtea

Hiriburua ilunabar-argiak inguratuta azaldu da. Elur-maluta lodiak jausten dira, eta kale-argi piztuen aldamenean, nagikeriaz-edo, elurra hegaldaka ari du; teilatuen gainean zabalduz doa geruza fin batean, baita zaldien bizkarraldean, gizonen eta txanoen gainean ere.

Yona gurdizaina zuri-zuri dago, mamu baten antzo. Leraren eserlekuan eserita, giza gorputz bat makurturik egon daitekeen limiteraino, geldi-geldi dirau. Gainean eror lekiokkeen elur guztiak bere gelditasunetik ateraraziko ez lukeela esan liteke.

Haren zaldia ere zuri-zuri eta geldi-geldi dago. Zaldiaren gelditasuna, gorputz-alde hezurtsuak eta hanketako makil-zurruntasuna ikusita, gertutik begiratuta ere, badirudi zaldi itxurako gozoki horietako bat dela, hurrek txanpon baten truke erosi ohi dutena. Bere gogoetan murgildurik dago: gizon bat edo zaldi bat, baserriko girotik atereak eta hiri infernutar batera jaurtiak, Yona eta bere zaldia kasu, pentsamendu tristeak gogoan darabiltzanak, beti. Landa giroko bizimodu baketsuaren eta hiri liluragarrietako bizitza gorabeheratsuen arteko aldea (oro zarata eta

larrimina) zinez handia da. Hamaiketakoa baino lehen kalera atera dira, baina Yonak ez du ezer irabazi.

Itzalak lodituz doaz. Kale-argien argitasuna biziagotuz doa, gero eta dirdiratsuago. Zarata areagotuz doa.

–Entzun al duk? Viborgskara-ra! Lotan hago ala ezer?

Yonak zigor-kolpe bat ematen dio zaldiari; honek bizkarraldeko elurra astintzen du. Militarra leran eseri da. Gurdizainak zaldia akuilatu du, lepoa beltzarga baten moduan luzatu eta zartailua gora altxatzen du. Zaldiak ere lepoa luzatu, hankak altxatu eta, presarik gabe, abian jarri da.

–Kontuz ibili! –egiten dio oihu beste gurdizain ikusezin batek–. Ia harrapatu egin gaituk, inozo horrek! Mugi eskuinera!

–Hi bai gurdizain kaxkarra! –haserretzen zaio militarra–. Jo ezak eskuinera!

Gurdizain ikusezinaren biraoak oraindik entzun daitezke. Yonaren zaldiarekin topo egiten duen oinezko batek mehatxu bat bota dio. Yona, nahasita, lotsatuta, zaldia zigorraz jotzen du hainbat alditan. Badirudi durduzatuta, ergelduta dagoela,

eta bere inguruan begiratzen du amets sakon batetik esnatu berritan bezala.

–Hara, bazirudik gaur mundu guztia hire aurka dagoela, konspirazio batean bezala! –esaten dio ironiaz militarrek. –Denak zebiltzatek hi izorratu nahian, hire zaldiaren hanken artean sartu nahian. Hau bai benetako konspirazioa, hau!

Yonak burua bueltatu eta ahoa irekitzen du. Ez dago dudarik zerbait esan nahi duela, baina ezin du hitzik ahoskatu.

Bidaiaria haren ahaleginez ohartu eta galde egiten dio:

–Zer dugu ba?

Yonak ahalegin berri bat egin eta ahots ito batez erantzuten dio:

–Entzun, jauna... Semea hil zait... Joan den astean hil zen...

–Benetan...? Eta, zerez hil zen?

–Ez dakit... Gaixotasun ugari horietako batez... Hiru hilabete egon zen ospitalean eta azkenean... Jainkoak eraman du.

–Mugi eskuinera! –berriz entzun da beste oihu bat iluntasunean–. Itsua haiz ala? Hi bai inozo galanta!

–Ea ba! –dio militarrek–. Ibili azkarrago. Bestela, ez gaituk inoiz helduko. Zigortu zaldia!

Yonak berriz ere lepoa luzatu du beltzarga baten moduan, eserlekutik pixka bat altxatu eta baldartasun, astuntasun batez, zartailua astindu du.

Bidaiariarengana bueltatzen da behin eta berriro, elkarrizketarekin jarraitu nahirik; baina besteak begiak itxi ditu eta ez dirudi ezer gehiago entzuteko gogorik duenik.

Azkenik, Viborgskaya-ra iristen dira. Gurdizainak, adierazitako etxearen aurrean gelditu da; bezeroa jaitsi egiten da. Yona berriz ere bakarrik geratu da bere zaldiarekin. Taberna baten ondoan gelditzen da, zain, gurdiko eserlekuan eserita, makur-makur eginda, geldi. Elurrak berriro gorputza estaltzen dio eta zaldia eta lera oihal zuri batean biltzen ditu.

Ordu bat, bi... Inor ez! Bezerorik ez!

Baina, bat-batean, Yona inarrosi egiten da; bere aurrean hiru gazte gelditu direla ikusi du. Bi altuak dira, argalak; hirugarrena, baxua eta konkorduna da.

–Gurdizain!, eraman gaitzak polizia-etxera!
Hogei kopek hiruron truke.

Yonak uhalei heltzen die, gorputza lerdin jartzen du. Hogei kopek gutxiegia da; baina, hala ere, onartu egin du; bezeroak izatea da garrantzitsuena beretzat.

Hiru gazteak, estropezuka eta irainka, lerara igo dira. Bi eserleku besterik ez dagoenez, denbora luzez ika-mika aritzen dira hiruetako zein joango den zutik. Azkenik, konkorduna zutik joango dela erabaki dute.

–Aurrera, ba! –oihu egin dio konkordunak Yonari, bere atzean kokatuz–. Hirea bai txano itsusia, motel! Hiri osoan ezetz aurkitu hirea baino txano itsusiagorik...

–Jauna umoretsu dago! –dio Yonak irri behartu batez–. Nire txanoa...

–Bueno, bueno! Bizkortu zaldiaren trosta. Bestela, ez gaituk inoiz helduko. Bizkorrago joan ezik, zaplazteko batzuk emango dizkiat.

–Buruko mina zeukaat –dio gazteetako batek–. Atzo, Vaskak eta biok lau botila koñak edan genizkian Dukmasov-en etxean.

–Hori ez duk egia! –erantzuten dio besteak–
. Gezurti hutsa haiz, lagun, eta badakik inork ez
diala sinesten.

–Hitz ematen diat!

–O, hire hitza! Txakur-txikirik ere ez niake
emango nik horren truk.

Yona hizketan hasi nahian, burua itzuli eta,
hortzak erakutsiz, irri egiten du ahots mehe batez.

–Ji, ji, ji... Hori bai umore ona, hori!

–Tira, agure hori! –oihu egiten dio haserre
konkordunak–. Bizkorrago joango haiz ala zer?
Astindu gogor hire zaldia. Hau bai zaldi alferra!
Mila demonio!

Yonak zartailua astindu du, bere eskuei
eragin die, gorputz osoa inarrosi egin zaio. Hala eta
gutziz ere, pozik dago; ez dago bakarrik. Errieta
egiten diote, iraindu egiten dute; baina, behintzat,
giza ahotsak entzun ditzake. Gazteek oihu egiten
diote, iraindu egiten dute, emakumeei buruz hitz
egiten dute. Egoki deritzon une batean, Yona
berriro bezeroengana bueltatu eta esaten die:

–Eta nik, jaunak, semea galdu berri dut.
Joan den astean hil zitzaidan...

–Denok hil beharra zeukaguk! –arrapostu egiten dio konkordunak–. Baina, bizkorrago joango haiz ala zer? Hau jasangaitza duk! Nahiago diat oinez joatea.

–Bizkorrago joatea nahi baduk, emaiok zaplazteko bat –aholkatzen dio lagunetako batek.

–Entzun duk, txorimalo horrek? –oihu egiten dio konkordunak–. Horrela jarraituz gero, ederra hartuko duk.

Eta, hitz horiek esateaz batera, ukabilkada bat ematen dio bizkarrean.

–Ji, ji, ji! –barre dagi Yonak, gogorik gabe–. Jainkoak gordeko ahal dizue betiko zuen umore ona!

–Gurdizain, ezkonduta hago? –galde egiten dio bezeroetako batek.

–Nik? Ji, ji, ji! Hau bai jaun alaiak! Ez, ez dut inor... Hilobia baino ez dut zain... Nire semea hil da; baina Heriok nigan ez du interes berezirik. Okertu egin da, eta nire bila etorri beharrean, nire semearen bila joan da.

Eta burua berriro itzultzen du bere semea nola hil den kontatzeko; baina une horretan,

konkordunak pozezko hasperen bat eginez, hots egiten du:

–Azkenean, heldu gaituk!

Hitzartu bezala, Yonak hogeit hamar kopek jaso ditu eta bezeroak jaitsi egin dira. Begiez jarraitzen die, atetzar baten atzetik desagertzen diren arte.

Ostera ere bakarrik gelditu da bere zaldiarekin. Tristurak berriro erasotzen dio gogorkiango, ankerkiango, bere bihotz nekatuari. Kaletik igarotzen den jendetzari beha gelditu da, milaka oinezkoen artetik entzun nahi dion baten bat bilatuko balu bezala. Baina jendea presaka dabil eta berataz ohartu gabe jarraitzen du aurrera.

Haren tristura areagotuz doa une batetik bestera. Lazki, amaigabeki. Tristura Yonaren bularretik atera ahal izango balitz, mundu osoa estaliko luke.

Yonak atezain bat ikusi du ate batetik irteten eta harekin hitz egiten saiatzen da.

–Zer ordu da? –egiten dio galde, leunki.

–Laster hamarrak joko ditu –erantzuten dio besteak–. Urrun zaitez apur bat; ez duzu ate aurrean gelditu behar.

Yonak pixka bat aurrerago egiten du, berriz ere makur-makur jarri eta bere gogoeta tristeetan murgildu da. Pertsoneri hitza zuzentzea alferrikakoa dela sinetsita dago.

Beste ordu bat igaro da. Ondozik sentitzen da eta erretiratzeko ordua dela erabakitzen du. Lerdendu eta zartailua astintzen du.

–Leher eginda negok –xuxurlatzen du–.
Lotara joan behar diat.

Zaldiak, bere jabe zaharraren hitzak ulertu izan balitu bezala, trosta airosan abiatzen da.

Ordubete geroago, Yona etxean dago, hau da, gela handi eta zikin batean dago, non, lurrean edo bankuetan etzanda, dozenaka gurdizainek egiten duten lo. Giroa astuna, itogarria da. Zurrungak entzuten dira.

Yonari damutu egiten zaio horren goiz erretiratu izana. Gainera, ia ez du dirurik irabazi. Akaso, horrengatik sentitzen da horren triste eta malurosoa.

Bazter batean, gurdizain gazte bat agondu da. Bularrean eta buruan hazka egin eta begiradarekin zerbaiten bila hasi da.

–Edan nahi al duk? –galdetzen dio Yonak.

–Bai.

–Tori, hemen duk ura.. Semea hil zaidak...
Ba al henkien? ... Joan den astean, ospitalean...
Hau bai zoritxarra!

Baina bere hitzek ez dute inongo eraginik izan. Gurdizainak ez dio kasurik egin, berriro etzan da, burua tapakiarekin estali eta handik gutxira zurrungaka entzuten zaio.

Yonak hasperen egin du. Bere zoritxarrari buruz hitz egiteko premia larri, eutsiezin bat oldartu zaio. Ia astebete joan da bere semea hil zenetik; baina bihotz oneko norbaitekin kontuaz hitz egiteko aukerarik ez du izan. Bere semearen heriotzaz luze eta zabal hitz egin nahi luke, zehaztasun guztiez. Kontatu beharra dauka bere semea nola gaixotu zen, zenbat sufritu duen, hiltzean ahoskatu zituen hitzak. Nola ehortzi zuten ere kontatu nahi luke... Bere seme zenduak herrixkan alaba bat utzi du, eta horretaz ere hitz egin nahi luke. Hainbeste gauza ditu kontatzeko! Burua ezker-eskuin gupidaz mugitzen, hasperenka, berataz errukiturik entzungo zion norbait aurkitzeko zer ez luke emango! Onena litzateke edozein emakume nekazarirekin hitz egitea; emakume baserritarrak tuntunak badira ere, biziki gustatzen zaizkie-eta mota horretako kontuak, eta nahikoa da bi hitz esatea negarrez ur daitezen.

Yonak bere zaldia ikustera joatea erabaki du. Jantzi eta ukuiluan sartu da. Zaldia, geldi, belar ondua ari da jaten.

–Jaten ari haiz? –esaten dio Yonak, bizkarraldean zapladatxo batzuk emanaz–. Zer egingo diogu ba, mutil? Oloa erosteko adina diru irabazi ez dugunez, belar iharrarekin konformatu behar... Zaharregia nauk diru asko irabazteko... Egia esan, ez nitek lan egiten jarraitu beharko. Semeak nire lekua hartu behar zian. Benetako gurdizaina huen, oso-oso ona; gutxik bezala ezagutzen zian lanbidea. Zoritxarrez, hil egin duk...

Isilune baten ostean, Yonak aurrera jarraitzen du.

–Bai, lagun..., hila zegok... Ulertzen? Pentsa ezak hik seme bat huela eta hil egiten dela... Noski, sufrituko huke, ezta? ...

Zaldiak belar ondua jaten jarraitzen du, bere jabe zaharrari entzuten eta arnasoska, arnasa heze eta bero bat botaz.

Yonak, belarri egiten dion izaki bizidun bat azkenean topaturik, barrena hustu eta, poliki-poliki, den-dena kontaktzen dio.

AMAIERA